

Elhuyar Fundazioa LREC 2008 biltzarrean

Aztiria Urtaran, Josu
Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak

Elhuyar Fundazioko I+G+Bko lantaldea hizkuntza-teknologien LREC 2008 biltzarrean izan da, Marrakechen. Hizkuntza-teknologietako azken joerak ezagutu, eta Elhuyarren I+G+Bren azken ikerketa-proiektuak nazioartean ezagutarazi ditugu.

LREC BILTZARRA (*LANGUAGE RESOURCES AND EVALUATION CONGRESS*) hizkuntza-teknologien ikerketa eta ebaluazio mailako biltzarrik nagusietako bat da. Aurtengo edizioa Marrakechen izan da, maiatzaren 26tik ekainaren 1era.

LREC biltzarra foro ezin hobea da hizkuntza-teknologien arloko ikerketa-proiektuak ezagutu, joera nagusiez jabetu eta I+G+Bko jardueren emaitzak ezagutarazteko. Horretan ari garen ikerketa-taldeontzat oso garrantzitsua da han izatea, eta Elhuyar Fundazioko I+G+Bko lantaldearen presentzia handia izan da aurtengo edizioan.

LREC 2008ko biltzar nagusian, bi ikerketa-proiektu aurkeztu ditu Elhuyar Fundazioak. Batetik, WNTERM proiektua aurkeztu du Eli Pociellok. WNTERM zientzia eta teknologiarren domeinu-ontologia eleaniztuna garatzeko proiektua da (euskaraz eta ingelesez), eta IXA taldearen EusWordNet eta Elhuyar Fundazioaren Zientzia eta Teknologiarren Hiztegi Entziklopedikoaren baliabideak erabiltzen ari gara ezagutza-basea eratzeko. Bestetik, CorpEus (corpeus.elhuyar.org) eta Elebila (www.elebila.eu) tresnen eraginkortasuna are gehiago hobetzeko egin den ikerketaren berri eman du kongresuan Igor Leturiak.



Ezkerretik hasita, Igor Leturia, Josu Aztiria, Xabier Saralegi, Maialen Lopez de Lacalle, Anton Gurrutxaga, Eli Pociello eta Iñaki San Vicente.

esperimentuen berri eman dute Xabier Saralegi eta Iñaki San Vicentek.

Igor Leturiak eta Iñaki San Vicentek beste aurkezpen bat egin dute Web As Corpus *workshop*-ean. Hain zuzen ere, Corpus espezializatuak Internetetik automatikoki eratzeko ikerketa-proiektu bat dugu martxan, eta proiektuaren orain arteko emaitzak aurkeztu ditugu.

Hizkuntza-teknologien ikerketa eta garapenean, hainbat baliabide eta tresna garatu ditugu orain arte, ibilian-ibilian bagoaz aurrera, eta gure lanaren emaitzak nazioartean ezagutarazteko aukera eman digu LREC 2008 biltzarrak.

Informazio gehiago:

- LREC 2008
- The 4th Web as Corpus
- Building and Using Comparable Corpora

Tailerrak

Biltzar nagusiaz gainera, hainbat *workshop* egin dira, ikerketa-arlo jakinetako tailer praktikoak. Horietako batean, Building and Using Comparable Corpora *workshop*-ean, Corpus konparagarrietatik abiatuta terminologia elebiduna erauzteko teknikak garatzeko eginen ari garen ikerketa-lanaren eta